

## SENEZ itzulpen-aldizkariaren 55. zenbakia kalean



**Argitalpen-urtea:** 2024

ISSN zenb.: 1132-2152

LG: SS-1049-2015

304 orrialde

**Zuzendaria:** Amaia Apalauza Ollo

**Erredakzio taldea:**

Isabel Etxeberria Ramírez

Claudia Torralba Rubinos

Itziar Diez de Ultzurrun

Maite Imaz Leunda

Patxadaz, bihotz-begiz eta presarik gabe irakurtzeko gomendioarekin dator aurtengo *Senez* oparoa.

Presaren gizartean bizi gara. Boladan dago denbora aprobetxatzea; ez, ordea, denbora galtzea. Eta, denborarik ez galtzeko, ahalik eta testu gehien eta ahalik eta lasterren itzultzeko, sekulako pagotxa dira itzultzaile automatikoak eta adimen artifiziala. Biderik zuzenena eta lasterrena, ordea, ez da beti onena eta gozagarriena: batzuetan, merezi du sigi-sagaka eta itzuli-mitzulika ibiltzea, bide bazterreko zuhaitz eroriei begiratzea, eguraldiaz jakiteko tekla bat jo beharrean zerura begiratzea eta zer esaten digun ulertzen saiatzea, edo papereko hiztegieta ele-miaka ibiltzea, honi eta hari galdezka aritzea. Merezi du denbora «galtzea», alegia.

Patxada lagun dakargu, beraz, aurtengo *Senez* aldizkaria. Hogeita hiru artikulu, guztira. Hogeita hirutik gora egile. Urtero ohi dugun bezala, **gogoan hartu ditugu 2023an hilak, Xabier Mendiguren Bereziartu eta Jorge Gimenez Bech**, Lurdes Auzmendik eta Aritz Galarragak idatziriko artikulu banatan. Pertsonatik pertsonara, **Jone Aldamizetxebarriari elkarrizketa** egin dio Bego Montoriok. Literatura-itzulpenari heldu diogu hurrengo zazpi artikuluetan. Poesiaren atalean, zenbait poetaren poema bana euskarara itzulita ekarri dizkigu Isa Etxeberriak, **Munduko Poesia Kaierak bildumari eskainiriko artikulu jostarian**. Euskarara itzulitako narratiban, **Ahmadou Kourouma idazle malinkearen lana itzultzeaz** jardun du Aiora Jakak, Margarita Nafarroakoaren **Heptamerona euskaratzeko ahalegin kolektiboaz** Xabier Artolak, Ines Castiellak, Itziar Diez de Ultzurrunek eta Fito Rodriguezek, eta **Yukio Mishima japoniar idazlea itzultzeaz** Iker Álvarezek. Euskaratik gaztelaniarako zubiak ere gero eta usuagoak izanik, **Uxue Apaolaza idazlearen lanaren gaztelaniazko itzulpena** ekarri du Angel Errok hizpidera, eta, ikuspegi soziologikoago batetik, **gaztelaniara itzulitako lanak**

**gizarteratzeko moldeez** idatzi du Eli Manterolak. Literaturaren sorotik atera gabe, **itzultzaileen oharrak** aztertu ditu Beñat Landak.

Txantxangorriak bezala jauzi ttipi bat eginez, gai sozialagoetara jo dugu hurrengo orrialdeetan: EIZIEk antolaturiko mahai-inguru batean esanak gogoan, **testu feministen itzulpenari buruz gogoeta** egin du Amaia Astobizak, itzulpenetan **hizkera ez-sexista erabiltzeko gako batzuk** eman ditu Nora Acostak, eta **euskarazko itzulpenei maiz ezarri ohi zaizkien estigmatik askatzeko proposamena** dakarkigu Danele Sarriugartek. Lanbidearen egoerari begira ere jarri gara; hala, batetik, **lau ahotsetara osaturiko elkarrizketa bat** ekarri digu Ibai Sarasuak, **itzultzaile autonomoen egoeraz**, kezkez, lanbaldintzez, oztopoez eta onurez, eta, bestetik, **euskaraz lan egiten duten interpreteek azken hilabeteotan abiatu duten prozesu baten berri** eman digute Claudia Torralbak eta Maitane Uriartek.

Arlo espezializatuagoen lilitagian, inurri-lanetan aritu dira Alaitz Zabaleta **administrazio-itzulpenaz**, Ane Garmendia **ikus-entzunezkoen itzulpenaz**, Itziar Zorrakin-Goikoetxea eta Maitane Junguitu **bideojokoen lokalizazioaz**, eta Iñaki Lopez de Luzuriaga **historia-testuetako koronimoen itzulpenaz**.

**Adimen artifiziala eta itzultzaile automatikoak** ezinbesteko bidelagun ditugunez, eta malkarrak zelaitzeko ahaleginetan, **gaiari buruzko gogoetak eta azterketa tekniko bat** egin dizkigute Karlos del Olmok eta Nora Aranberrik artikulu banatan.

Eta, bukatzeko, gure lanbidearekin loturiko **liburu-gomendioen atalean**, Danele Sarriugarteren eta Manu López Gaseniren ekarpenak bildu ditugu.

---

Ale honetako kolaboratzaileak, artikulugileez gainera:

Azala eta irudiak: Juan Azpeitia

Maketazioa: Jose Luis Agote

Itzultzaileak: Kristin Addis (ingelesa), Joana Pochelu (frantsesa)

Zuzentzailea: Amaia Apalauza

## Senez 55 (2024)

### Aurkibidea

Xabier Mendiguren Bereziartu: aitzindaria, maisua, lankidea

LURDES AUZMENDI AIERBE

Jorge Gimenez Bech (bigarren mailako pertsonaia baten begietatik)

ARITZ GALARRAGA

Jone Aldamizetxebarria Leizaola, desertuan lilia

BEGO MONTORIO

Munduko Poesia Kaierak: 50 poeta etxean eta 14 bidean

Sarrera: ISABEL ETXEBERRIA RAMÍREZ

Itzulpenak: Jon Alonso, Gotzon Barandiaran, Joxe Mari Berasategi Zurutuza, Aitor Blanco Leoz, Itxaro Borda, Xabi Borda, Patxi De Vicente, Juan Garzia, Koldo Izagirre, Joannes Jauregi, Ainhoa Mendiluze Ormaetxea, Bego Montorio, Uxue Rey, Beñat Sarasola

Nola euskaratu malinkeraz pentsatu eta frantsesez idatzitako testu bat: Ahmadou Kouroumaren *Independentzien eguzkiak*

AIORA JAKA IRIZAR

*Heptamerona* euskaratzeko egitasmoa

XABIER ARTOLA ZUBILLAGA, INES CASTIELLA IMAZ, ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÀ ETA FITO RODRIGUEZ

Aitortza baten maskara: Yukio Mishimaren *Maskara baten aitortza* irakurtzeko eta itzultzeko gako batzuk

IKER ÁLVAREZ

Euskal idazle bizidunak itzultzeaz –Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasa* itzultzeak zer irakatsi didan–

ANGEL ERRO

Euskal literatur lanak eta haien gaztelaniarako itzulpenak Euskal Herriko kultur eremuan

Elizabete Manterola Agirrezabalaga

Itzultzailearen oharren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa euskarazko hiru literatur itzulpenetan

BEÑAT LANDA DE MARCOS

Testu feministen itzulpengintza: borrokarako beste tresna bat?

AMAIA ASTOBIZA URIZAR

Hizkera ez-sexistaren erabilerarako itzulpen-teknikak

NORA ACOSTA LÓPEZ

Arazoa ez da euskara: itzulpena erresistentziatik

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES

Itzultzaile autonomoen gazi-gozoak mahai gainean: elkarrizketa bat lau ahotsetara

IBAI SARASUA GARCÍA

Euskal interpreteak martxan: kronika bat

CLAUDIA MARÍA TORRALBA RUBINOS ETA MAITANE URIARTE ATXIKALLENDÉ

Itzulpengintza Administrazioan: zenbait gogoeta

ALAITZ ZABALETA SAROBE

Ikus-entzunezkoen itzultzaileen abenturak eta desbenturak

ANE GARMENDIA ALBERDI

Bideojokoen lokalizazioaz

ITZIAR ZORRAKIN-GOIKOETXEA ETA MAITANE JUNGUITU DRONDA

Euskal Herriaren koronimoak, interferentzia lexiko-semantikoa eta itzultzailearen praxia

IÑAKI LOPEZ DE LUZURIAGA

Adimen artifizial sortzailea: paradigma aldaketaren eta disrupzioaren artean

KARLOS DEL OLMO

Itzulpen automatikoaren kalitatea ebaluatzeko metrika automatiko neuronalak euskararen zain

NORA ARANBERRI

Itzulpengintzako liburu-gomendioak:

Itzultzea, pluralean - DANELE SARRIUGARTE MOCHALES

Umeentzako itzulpenaren heldutasuna - MANU LÓPEZ GASENI